

3. Martin Almagro eta ideologia borroka

Josu Naberan



Josu Naberan Naberan Zamorako espetxean giltzapetutako apaiza izan da, euskara irakaslea, itzultzailea (batez ere Hobbes, Hume, Herodoto, Tuzidides) eta euskeraren jatorriari buruzko ikerlaria, baita iberiar hizkuntzari buruzkoa ere. Euskeraren jatorriari buruz *Hitzen koba* lana argitaratu zuen. Baita etnografiari buruz ere: *La vuelta de Sugaar eta Antzinako euskaldunen ilargi-egutegia* eta 2020an iberierari buruz argitaratu zuen bere lehen lana, *Euskera dantzara-El ibérico según el euskera*.

Martin Almagro eta ideología borroka

"Euskalduntze Berantiarraren" teoria ez da nolanhiko auzia: hain justu ere, euskeraren eta eta euskal kulturaren aurkako ardatza edo zioa da, bete-betean.

Hots, ideologia borrokaren ardatza. Zertan datza "ideologia borroka" hori?

Zehazki, gu euskaldunok ZELTA ginela, ez euskaldun, baina baskoiek inbaditu gintuztela, eta ez gabiltza bromatan.

Ideologia "zelta, zeltibero, ario" honen atzean jende ilustratua datza; horietariko GURUA Almagrotar bat da, Almagro-Gorbea falangista sagako Martin Almagro, eta hori "jende da" España mailan: RAEko bitalizioa eta ez dakit zenbat beste medaila.

Gauza da, letratua izan arren (egitan enorante hutsa baita, zeren ez baitu ezagutzen bere ama-hizkuntza ere IBERIERA eta are gutxiago EUSKERA), bera ari dala borroka ideologikoa irabazten. Ikus bestela National Geographic nazioarteko aldizkariak erakusten duen mapa, gu zeltatzat hartuz.

Honek euskaldunok lotsagorritu egin beharko gintuzke, baina ez da hala. EHaren aurpegian ez da ageri gorri kolorerik.

ZER EGIN, Ivan Ilich?

-Esan dizuet, lehenik ESPABILATU!